

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Kontratazio Mahaien osaera. Tokiko Gobernu Batzarra, kontratazio-organo gisa agertzen den kasuetan. Bigarren aldaketa osaeran, kontratazio-teknikariaren inkorporazioagatik**

2019ko uztailaren 12an, Tokiko Gobernu Batzarrak Kontratazio Mahaiak eratzeko erabakia hartu zuen, Tokiko Gobernu Batzarra Kontratazio organo gisa agertzen den kasuetan.

Orduz geroztik, alderdi batek eskatuta, 2020ko uztailaren 17an, aipatu den erabaki hori aldatu egin zen EHBILDU Udaltalde Politikoaren ordezkartzan.

Europako Batzordeak berak, 2017ko urrian argitaratutako dokumentuan, gomendatutako administrazio-kontratazioaren beharrezko profesionalizazioak administrazi arloko Kontratazio teknikari bat sartzeari exijitu du, kontratazio-prozesuan efizientzia bermatzeko eta kontratazio elektronikoko tresnak txertatzeko mekanismo gisa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 23. artikulua emandako ahalmenak erabiliz eta alkate-udalburuaren eskumenak eskuordetzeari buruzko 2019ko uztailaren 1eko 1611 Dekretua oinarri, Tokiko Gobernu Batzarrak hau

#### EBATZI DU

LEHENENGOA. Aldatzea Kontratazio Mahaiaren osaera aldatzea Tokiko Gobernu Batzordea kontratazio-organo gisa agertzen den kasuetarako, eta bertan sartu eta txertatu beharreko langile teknikarien artean kontratazio-teknikaria sartuta.

Aurrekoaren ondorioz, Kontratazio Mahaia, Tokiko Gobernu Batzordea kontratazio-organo gisa agertzen den kasuetan, honela osatuko da:

- Mahaiburua:

Alkate-udalburua edo hark eskuordetza lagatako funtzionarioa.

- Bokalak:

A) EAJ/PNV Udaltalde Politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Joseba Amondo Escuza.

– Ordezkoa: Ander Larrínaga Saíz.

B) EH BILDU Udaltalde Politikoaren ordezkaria:

– Titularra: Jose M<sup>a</sup> Gutiérrez Angulo.

– Ordezkoa: Lamia Arcas Nogales.

C) Udaltatzako idazkari nagusia edo berak eginkizun eskuordetza laga dion funtzionarioa.

D) Korporazioko kontu-hartzaile nagusia edo berak eginkizun eskuordetza laga dion funtzionarioa.

E) Kontratazio publikoko teknikaria edo berak eginkizun eskuordetza laga dion funtzionarioa.

F) Teknikari bat, kontratatu beharreko gaiaren arabera.

- Mahaiko idazkaria:

Udalbatzako funtzionarioa.

Nolanahi ere, Kontratazio Mahaien deialdiak berorretan ordezkartzarik ez duten udal-talde politiko guztiei jakinaraziko zaizkie, bertaratzeko aukera izan dezaten, jendaurrean jarduten den ekitaldien kasuetan. Bilkura horietan, ordezkartzarik ez duten korporazioko kide horiek hitza izango dute, baina botoa emateko eskubiderik ez.

**BIGARRENA.** Mantentzea oso-osorik Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 12an hartutako erabakia Kontratazio Mahaiaren funtzionamenduari buruz, Tokiko Gobernu Batzarra kontratazio-organoa den kasuetarako, ondoko eta honako eduki honekin:

Ahalmenak: Kontratazio Mahai honi dagokio Laudio Udalak egindako Tokiko Gobernu Batzarraren eskumeneko kontratuak, administratiboak zein pribatuak, prestatzeko, esleitzeko eta gauzatzeko ahalmen guztiak, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2018 Legean eta gainerako araudi aplikagarrian eta/edo, hala badagokio, Lege hori ordezten duen araudi ezargarrian adierazitakoarekin bat etorritik.

Funtzionamenduko arauak: Nolanahi ere, kide anitzeko organo gisa izango duen funtzionamendua Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera izango da.

Eguna, ordua eta tokia: Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion Kontratazio Mahaia egiteko egun eta ordu hauek finkatzea:

- Asteartea, 12: 30etik aurrera.
- Ostiraletan, 12: 30etik aurrera.

Horretarako, udal-arlo eta -zerbitzu guztiek dute barne izaerako programa edo aplikazio bat, beste udal-arlo eta -zerbitzu batzuek Kontratazio Mahaiaren bilerak egiteko erreserbatutako orduak kontsultatzeko. Aretoaren eta orduaren erreserba telefonoz egin beharko da 808an, edo, bestela, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ).

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokion Kontratazio Mahaia 1. solairuko bilera-gelan egingo da beti, salbuespenezko egoeretan izan ezik eta aldeztu aurretik jakinarazita.

**HIRUGARRENA.** Erabaki honen berri ematea Udal Zerbitzu guztiei eta Mahaiko kideei (titularrei eta ordezkoei). Halaber, erabaki hau organo kontratatzailearen profilean eta ALHAOn argitaratuko da.

Laudio, 2021eko ekainaren 8a

*Alkate-udalburua*

**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**